

1.- INGURUAREN ANALISIA

1.1. Kanpoko testuingurua

Eleizalde Ikastola Bermeoko Arene auzoan dago, Bakioko errepidearen eta Udal kiroldegiaren bitartean. Elkarren ondoan dauden hiru eraikin ezberdinek osatzen dute: Eraikin nagusia, Aitxitxeenea baserria eta 2010ean eraiki zan eraikina. Ia gela guztiak, aretoa, sukalde, jantoki ... eraikin nagusian kokaturik daude. Baserrian, lau ikasgela daude eta, azkenik, eraikin barrian DBH 2. ziklorako beste gela eta irakasle gela. Aurten eraikin horretan gela egonkorra ere kokatu dugu.

Gure ikastolara datozen ikasle gehienak bermeotarrak dira. Baina Bakioko eta Mundakako ikasleak be baditugu, auzoetakoez gain.

2005etik aurrera hainbat etorkin be baditugu, ia guztiak hezkuntza sailak bidalitakoak.

Maila sozioekonomikoari adituta, gure herria erdi mailan kokatzen da. Gure ikastetxera datorren familia gehiengoan egoera be horixe da.

Eleizalde Ikastola, Euskal Herriko Ikastolen Elkartean bazkide da. Bertan adosten diran ildoak jarraitzen dituelarik. Era berean ERKIDE hezkuntza kooperatiben elkargoan ere bazkidea da.

1.2. Barneko testuingurua

Eleizalde ikastola izena erabiltzen dugun arren gure Hezkuntza Elkargoa izendatzeko, bere izen osoa LUIS DE ELEIZALDE SOCIEDAD COOPERATIVA DE ENSEÑANZA da. Elkargo integrala da, hau da, guraso eta langileen parte esanguratsu bat bazkide dira.

❖ Ikastetxe mota:

Ikastola finantziatzeko, Hezkuntza Sailaren diru-laguntza jasotzen dugu, hau da itunpeko ikastetxea gara. Baina Ikastola aurrera erodateko jasotzen dugun finantzaketa ez danetz nahikoa, ikasleko kuota bat ordaindu behar da, bai zerbitzuak, bai hezkuntza atala ordaintzeko.

❖ Hezkuntza eskaintza:

Haur Hezkuntza 0 (oihaletakoak) eta DBH 4ra arteko hezkuntza eskaintzen dogu, D erduan. Hiru etapa dira, beraz, gure ekin esparrua: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Antolakuntzara begira, etapak ziklotan banaturik daude, era honetara:

HAUR HEZKUNTZA		LEHEN HEZKUNTZA			BIGARREN HEZKUNTZA	
1. zikloa	2. zikloa	1. zikloa	2. zikloa	3. zikloa	1. zikloa	2. zikloa
HH 0	HH 3	LH 1	LH 3	LH 5	DBH 1	DBH 3
HH 1	HH 4	LH 2	LH 4	LH 6	DBH 2	DBH 4
HH 2	HH 5				GELA EGONKORRA	

2017-2018 ikasturtean, honako honek dira gure datuak:

MAILEA	1. GELA	2. GELA	3. GELA	4. GELA	GELA KOP.
HH 0	10				8
HH 1	12	12	11	11	
HH 2	18	18	18		
HH 3	23	23			6
HH 4	24	26			
HH 5	27	27			
LH 1	27	27			10
LH 2	25	26			
LH 3	23	23			
LH 4	26	25			
LH 5	21	21			
LH6	21	21			
DBH 1	26	24	25		11
DBH 2	28	27			
DBH 3	24	14	24		
DBH 4	18	17			
GELA EGONKORRA	4				
GUZTIRA					36

● Langileria:

DOZENTEAK: guztira

Tutoreak: 36

Gainontzeko irakasleak: 15

Hezkuntza bereziko laguntzaileak: 4

Laguntza geletako irakasleak: 2

EZ DOZENTEAK: 8

● Ratioak:

Gela/irakasle ratioa: 0,70 alderantziz 1,41

Ikasle/ irakasle ratioa: 13,63

● Egonkortasuna:

Ikastolako langileria egonkorra da, irakasleak barne. Gauza bera gertatzen da ikasleekaz ere: HH 2an hasten dira gehienak eta DBH amaitu artean bertan jarraitzen dabe. 2012tik aurrera etorkinen portzentaje nabarmen gutxitu da. Baina, badirudi 17-18 ikasturtean gauzak aldatzen joango direla. Ikasle horrek dira gehien mugitzen direnak: batzuk eskola publikora joaten dira eta beste batzuk, beste lurralde batzuetara euren egoera ekonomikoaren arabera.

● Ikasleriaren ezaugarriak:

Ikasle gehienak herrikoak dira, baina era berean anitza ere. % 3,32 etorkinak dira, adoptatuak barruan dirala: errumaniarrak, hego amerikarrak, sahararrak eta marokoarrak dira.

Familia gehienak erdiko maila sozioekonomikoan kokatu arren, esanguratsua da dirulaguntzak jasotzen dabenen kopurua iaz % 27,84.

Premia berezidun ikaslek 23 ikasle doguz.

● Instalazioak:

ERAIKIN NAGUSIA	
Behe solairua	Sukaldea, jantoki eta monitoreen aldalekuak, botikina, aretoa, komunak, mantenukoaren gelea, biltegia, ikasleentzako dutxa eta aldalekuak, jantokia eta sukaldea. Trinketea.
Lehen solairua	Ikasgelak, irakasleen gelak, idazkaritza, zuzendaritza, makina gela, irakasleentzako komunak, ikasleentzako komunak, HH 0-3 ikasleentzako jantokia, batzar gela, tailerra, biltegi txikia, hh 0-1eko gelak eta jolastokia. Botikina, gurasoak hartzeko gela.
Bigarren solairua	Gelak, komunak, plastika tailerra, liburutegia, laborategia, informatika gela, igogailua, laguntza gela, irakasleen gela.
Hirugarren solairua	Gelak, biltegiak, hizkuntza gela, irakasleen gela bi, laguntza gela, musika gela.
BASERRIA	
Bigarren solairua	Gelak
Lehen solairua	Gelak eta komunak
ERAIKIN BARRIA	
Bigarren solairua	Ikasgelak, irakasle gela, komunak
Lehen solairua	Ikasgelak, komunak
Behe solairua	Teknologi tailerra, Teknologia biltegia, gurasoak hartzeko gela, komuna.
JOLASTOKIAK	
Beheko patioak, frontoia, patio txikia, baserri ingurua, Kaiola txiki.	

● **Gobernu organoak:**

Bazkideen batzar nagusia
Artezkaritza kontseilua
Ekonomia batzordea
Pedagogia batzordea (eskola kontseilua)

● **Funtzionamendu organoak:**

Zuzendaritza: zuzendaria, ikasketa burua
Zikloko koordinatzaileak
Koordinazio taldea
Lan talde
ezberdinak.

● **Irakasleen antolaketa:**

Irakasleak zikloka antolatzen dira. Ziklo bakoitzak bere koordinatzailea dauka.

● **Gurasoen antolaketa:**

Hezkuntza Sailak bidalitako familiak izan ezik, gainontzeko guztiak bazkide erabiltzaileak dira. Beraz, Batzar Nagusian eta gainontzeko organoetan hartzen dute parte.

Horrez gain, partaidetza sustatzeko eta ikastolako bizitza hurreratzeko, Gurasoen Sarea dugu antolatuta. Gela bakoitzak bere arduraduna izendatzen du eta arduradun horrekaz ikasturtean zehar 3-4 batzar egiten dira ikasturterako ekintzak antolatu eta hauen jarraipena egiteko.

Badago bazkide ez erabiltzaile kopuru handi bat ere, egun gurasoak ez direnak. Batzar nagusian parte hartzeko eskubidea dute, eta ordezkaria artezkaritza kontseiluan baita, baina gainontzeko egituretan ez dute presentziarik. Eguneroko funtzionamendutik kanpo geratzen dira.

● **Zerbitzuen antolaketa:**

Eskaintzen diran zerbitzuak honako hauek dira: jantokia, garraioa, goizetako zaintza, eskolaz kanpoko ekintzak. Zerbitzu nagusiak azpikontratatu egiten dira eta koordinazio lanetarako arduradunak dituzte.

● Tradizio pedagogikoa: irakaskintza estiloa

1997ko Hezkuntza proiektuan honako irizpide metodologikoak aipatzen ziran:

- 1.- Ikasleen partaidetza bultzatzea.
- 2.- Oinarrizko aztura batzuk (ikasteko, osasunaren alderako, astialdia antolatzeako...) ezartzea.
- 3.- Bai maila akademikoan, bai izaera arloan, ezaugarri positiboak edota lorpenak huts egiteak edota ezinak baino gehiago azpimarkatzea.
- 4.- Ikasle-irakasle eta ikasleen arteko harremana sendotzea.
- 5.- Hausnartzeko gaitasunaren garapena ahalbideratzea eta suspertzea.
- 6.- Ezaugarri edo ahalmen baikorrak suspertzea eta ezinak edo eragozpenak orekatzea.
- 7.- Arazoei irtenbideak bilatzen trebatzea.
- 8.- Ikasteko estrategia anitzak erabiltzea.
- 9.- Euskal kultura eta tradizioan txertatzea.
- 10.- Iraupenezko ebaluaketa ohizko tresna lez erabiltzea.

Hauetarik batzuen betetze maila egiaztatzea gabxa dan arren, badira gure ikastolaren estiloa ezaugarritatzen dutenak:

- Ikasle eta irakasleen arteko hartuemona hurrekoa da: ikasleek erraz jotzen dute irakasleengana, zenbait ekintzatan batera parte hartzen dute eta ziklo guztietan egiten dira egun bat edo bitik gorako egotaldiak ikastetxetik kanpo.
- Euskera eta euskal kultura oinarrizko balioztat jotzen da eta, naiz eta azken ikerketen arabera beherakada nabaria izan herrian, giro euskalduna berezkoa da.
- Etengabeko ebaluazioa egiten da, eta ebaluazioa egitean ikaslea bere osotasunean hartzen da kontuan, arlo akademiko hutsera mugatu barik.
- Ikasleen partaidetzari garrantzia ematen zaio eta eskola jardunean zein eskola orduetatik kanpo sustatu egiten da.
- Horiekaz batera badira zenbait jokabide gure estiloa adierazten dutenak:
- Ikastaldeari erreparatzen zaio banakoari baino gehiago, baina erritmo ezberdinetara egokitzen saiatzen gara, taldean denak batera lan egin beharreko tarteak eta banakoak lan egin beharreko tarteak txandakatuz. Banakoen beharriaz erantzun guran, antolaketa ezberdinak erabiltzen dira: talde malguak, talde lanak... Azken urtean Elkar laneko proiektua martxan jari dogu (ikasketa kooperatiboa).
- Bateratsu jokatzeari garrantzia ematen jako eta koordinazio egitura nagusia zikloa da. Gure kulturaren parte da alkarregaz lan egitea eta ikasleen ardura partekatzea.



Luis Eleizalde Ikastola

Arene auzoa, 6 – Bermeo 48.370

Tfnoa. 946187593 e-mail: bermeo@ikastola.eus

- Gurasoekaz hartuemon estua eta hurrekoa dogu eta familien beharrianezi egokitzeko ahalegina egiten da, alkarlana sustatuz.
- Hobakuntza eta barrikuntzetara zabalik gagoz, beti be ondo oinarrituak dagozala iritzi ezkeru. Egun metodologia aldaketan murgilduta gagoz, bai curriculumari adi, bai teknologia barrien erabilerari begira.
- Ikasleak ondo prestatuta egotea garrantzitsua da guretzat, eta horregaz batera gizabidetsu jokatzea bilatzen dogu.



2.- IKASTOLEAREN IZAEREAREN EZAUGARRI / ADIERAZGARRIAK

2.1 IKASTOLEA ZENTRO AKONFESIONALA DA

Zentroak berak, zentro moduan, ez dauz bultzatuko ezta galazoko bere komunitatearen barne izan leitekezan erlijioarekiko ideiak ez honeen manifestazioak.

Ikastola barneko talderen batek ekintza erlijiosoren bat antolatu gurako baleu, onartua izango da, beti ere holan jakinarazten badeutso Batzorde Zuzendariari eta ez badauz Ikastetxearen funtzionamendu orokorra edota ofizialki antolatuta egon leitekezan ekintzak eragozten.

.- Gabonak:

Gizabalore berezi batzuk lantzeko unea dira. Une bereziori ospatzeko antolatuko dan jaialdia igiria izango da: inguruan dagozan elementu kultural ezbardinak jasoko dira ("stand"en antzera edo eratu leitekez txokoak...).

Jaialdi hori antolatzea irakaslegoaren esku geratzen da.

.- Ikastola Eguna:

Egun honetako egitamua mezearekin igiri ohi da. Mezea antolatzea akonfesionala izateaz bat ez datorrenez, ikastoleak berak ez dau antolatu behar.

Hala ere, bere komunitatearen barne eratu gurako leukean talderik balego eta halan adierazoko baleu, horretarako eskubidea dauka. Beti be, jakina, antolatzailea bera dala eta ez Ikastolea argi itziz.

Programan jaialdiari hasiera ofiziala emoten deutson eginkizunaren aurretik agertuko da.

.- Geletan dagozan gurutzeak:

Kristautasunaren agerpena dira, ezin ukatu. Definizioagaz bat etorteko, garbi-garbian, ez litzatekez egon behar. Hala ere, uneren batetan aipatu dan moduan, momentu honetako egoerea aztertu da eta oraindik, beharbada, ez da egokia pauso hori emoteko.

Aurrerago barriro aztertu beharko da.

.- Ikastetxearen egoitza edota beste zerbaiten inaugurazioa:

Entitateari berari baino ez jagoko; beraz, ez da bidezkoa konfesionalitateak markatutako jokabideei eustea.

Halan izanik, inaugurazioak beste era batera egingo dira, bedeinkapenik barik (zinta ebagite, aurreku egite edo egoki ikusi leitekezan hainbat eratarata...).

.- Santa Ageda:

Euskalerrian sakonki sustraitutako tradizioa da. Ekintza honi eutsi egin behar jako eta, era berean oraingoz aditzen ez deutsegun beste tradizio batzuk ere eskuratu eta zaintzeari begiratu beharko jako (gure helburu nagusietako bat TRADIZIOA izango danez- hala nola Basatoste, Aratuste, San Juanak, Eguberri... esaera zaharrak berrreskuratuz, erabiliaz, kurrikulumean integratuaz,...).

2.- IKASLEEN NORTASUNAREN HEZIKETAN DITUGUN HELBURUAK

2.1.- IKASLEAK EDOZEIN EGOERAREN AURREAN ERITZIA IZANGO DAU.

ERITZI HORI ADIERAZOTEKO ESKUBIDEA IZAN BEHAR DAU, KOMUNIKAZIO BIDE EGOKIA ZAINDUAZ. (ERITZI KRITIKOA / KRITERIOA).

Horretarako , ENTZUTE, PENTSATZE eta EGOKI ESATEaren dinamikan hezi behar dira.

Hona hemen helburu honen lorpenerako izango doguzan jarraibide metodolojikoak:

a) Egoera edo gertakari baten aurrean, aspektu negatiboak soilki hartu beharrean kontuan , alde positiboak bilatu eta baloratuak izango dira.

b) Txikitatik emongo deutsegu umeei berba egin eta euren eritzia azaltzeko aukerea.

d) Arrazonatzearen prozedimentua landuko da, adinaren arabera baina jada txiki-txikitatik, dinoena arrazoitzeko eskatuaz beti.

e) Danon partaidetzea ziurtatuko da alkarrizketetan, asanbladetan ...

Kontuan izan behar da beti umeen artean izaera ezbardinekoak dagozala: lotsatiak izateagaitik baztertuta geratzen diranak (besteek alde batera izten dabezalako edo eurek euren burua halakotzen dabelako) "burunagiak" (pentsatzen ez ahalegintzearren beti isilik geratzen diranak), "bizkorrak" (parte hartu eta alkarrizketea monopolizatzen dabena beti) ...

Danon partaidetzea garantizatzeko ereari aditu behar jako. Asanbladetan, esaterako, parte hartzea ziurtatzeko era bat izan leiteke :

- Gaia izango dana ume guztiak aurretiaz prestatzea, galdeketa gisa edo (bakarka edo talde txikietan).
- Irakasleak aurretiaz argi euki behar dau asanblada horren bitartez lortu behar dana (adina, egoera eta beste kontuan hartuz).
- Ondorengo batzuetara heldu behar da, ez derrigorrez adostasunera, baina erabagi konsensuatuetara.

2.2.- BERE BURUA ZAINDU ETA DITUEN ARDURAK EDOTA BEHARRIZANAK INOREN AGINDUARI ITXARON BARIK BETETZEKO GAITASUNA ETA ERRESPONSABILIDADEA IZANGO DAU.

(AUTONOMIA/ ERRESPONSABILIDADEA / AUTODIZIPLINA).

- Bere buruarekiko ardurakizunean:

- Gorputzaren eta bere funtzionamenduaren ezagupena izan.
- Osasun eta garbitasun ohitura egokien jabe izan.
- Lanaren eta astialdiaren antolamendua *

* Astialdia bera zelan ulertzen dogun finkatu beharra dakusagu. Eztabaidatu ostean, halan definitzea erabagi dogu: Norberak, norbere aukerak eginik, antolatu beharreko denporea da astialdia; (edo) norbere onerako razionalki erabili behar dan denporea.

- Bere inguruarekiko hartuemonetan :

- Ingurua zaintzea.
- AlkARBIZTZARAKO behar diran jarrerak gordetzea.
- Gizarteak dauazan zerbitzuak ezagutzea eta modu egokian erabiltzea.

JARRAIBIDE METODOLOGIKOAK

a) Gorputzaren eta bere funtzionamenduaren ezagupena,

- Osasun eta garbitasun ohitura egokiak eta
- Ingurua zaintzea

ZEHAR ARLOAK dira (kontsumoa, higiena, drogomenpekotasunaren prebentzioa, sexualitatearen heziketa...) eta GIZARTE -n, IZADI -n eta Tutoritza orduetan integratuta dagoz.

b) Lanaren antolamenduan:

b.1. Ikasteko aurreztura eta aztura planifikazioari eutsi eta beheragoko mailetara zabaldu (aurrezturak / Eskolaurrean eta L.Hezkuntzako 1. zikloan)

b.2. Eskola orduetan lan autonomorako esparrua ezarri. Une horreetan ikasle bakoitzak, bere ikasketa beharizanen arabera antolatuko dau bere lana.

b.3. Ezarritako esparruak (B.L.D.) ez diranean eta salbuespenekaitik, irakasleren bat etorri ezin danean edo, orduren batetan bakarrik egon behar diranean ere kriterio bardinagaz jokatu (Goi zikloan).

b.4. Etxeko zereginetan ere parte hartzera bultzatu. (Aztura -aurreazturetan inzididu gurasoekin batera) Pedagogi Batzordearen ardurea ere izango da.

d) Astialdiaren antolamendua :

d.1. Herrian astialdia betetzeko edo horretan orientatzeko dagozan aukerak ezagutu dagiezan, proposamen bat : gelako lagunak taldeka banatu eta tokiezbardinetara bialdu (erakusketetara, gazteentzako informazio bulegora, Museora,...) informazioa jasotera. Jaso ostean, talde bakoitzak egin dauanaren barri emon eta bere eritzia azalduko leuke gelan ...

d.2. Antolatzen diran eskolaz kanpoko ekintzak (bai zentroak antolatutakoak, bai bestek) ere baliogarri ikusten dira aukera ezbardinak ezagutu dagiezan.

d.3. Irakasleaok umeeekin egiten doguzan ibilaldietan umeeek antolatu beharreko une bat izan daitela (Ibilaldia egin aurretik planifikatu beharko leukie).

d.4 Etxean ere astialdiko eginkizunak antolatzen parte hartu beharko leukie. (Pedagogi Batzordeak bere esku hartu behar).

2.3.- IKASLEAK BESTEAK BERE IZAERAN ONARTUKO * DAUZ ETA BESTEARENGANA ERA ZUZENEAN, EGOKIAN HURRERATUKO DA **.

*ONARTZEA halantxe ulertuta :

"Dala izaera berezitasunekaitik nahiz dala ondorengo eskasak sortarazten dabean jarrerak daukazalako, gure patroiekaz bat ez datorren inor ez dala baztertua izango". Hezitzaileok egoereaz jaubetu behar gara eta, ez egokitzat jotzen badogu, bideratu egin behar dogu. Berezitasunotan ez dira ulertu behar lotsabakokeriak etahalakoak bakarrik. Parterik ez hartzea eskolan, esate baterako, aditu eta bideratu beharreko jarrera da.

** ERA ZUZENEAN , EGOKIAN HURRERATZEA.

Jarrera eta hizkera egokiak izan behar ditugu. Trataera ezbardinak euren esparrua etakodigoak daukez eta ez dira berez ikasten; irakatsi egin behar dira, ordea.

URBANIDADEA eta KORTESIAZKO formula gaurkotuak, baliogarriak, bilatu eta landu behar doguz.

JARRAIBIDE METODOLOJIKOAK:

- a) Umeekaz "paktoak" egin , isiltasuna edo beste zerbait lortzeko.
 - b) Asanbladen bitartez edo, nagusitxoekaz erreflexio uneak sortu, zertan egoki jokatzen gagozan edota zertan hobatu beharra daukagun azaltzeko aukerea emonik. Baita beste arazo puntualen batzuk tratatzeko: euren arteko hartuemonak; inkestak pasatu, ikasleen baloreetaz daukezan aurrekonzeptuak ataratzeko ...
 - d) Gelen arteko konpetitibitatea gainditzan joateko, gelen arteko hartuemonak zuzpertz, ekintza batzuen inguruan alkartuz (ikasturte amaierako ibilaldian sortzen diran ondorengo baikorren esperientzian oinarrituz).
 - e) Bakarkako alkarrizketak izan, ikasle konkretuak diranean arlo honetan huts egiten dabenak .
 - f) Aurretiaz umeaganako jarrera baikorra izan, uste onekoa eta itxaropentsua, egin beharrekoak ondo egingo dauazala aipatuz.
 - g) Jarrera barriak ezartzeko edo ahul ikusten diranak zuzpertzeko, ondo eginak baloratu.
- Batzuetan beharrezkoak izan leitekez sari materialak, baina balorazio soziala eta "motivación de logro" dalakoa dira helburu.

h) Jarrera ezegokien aurrean, euron zergaitia bilatu eta, honen arabera, bideratzen ahalegindu.

Aditzekoa izango da egoera fisiko batzuk edota instalazioak eurak izan leitekezala jarrera ezegoki askoren iturburu. Halan danean, moldatu (egokitu) beharra eukiko dogu.

Edo, aldaezinak balira, kontuan hartu, behintzat, jarrerok aztertu eta epaitzerakoan.

i) Jarrera ezegokiak ebitatzeko, alternatibak eskeini, aukerak ezagutzera emon.

j) Ikasleari, dana dalakoagaitik, erantzun zakarra emoten deusagunean, parke eskatu. Baita ikasleak gudanako hutsegitea daukanean, geuk emon bidea parke eskatu deigun; bide alternatibo hori erakutsi.

l) Geure haserraldietan, umeen aurrean, geure egoera berbalizatu eta kontrol bide bat agertu (kanpora joan, beste zeozer egin ...) Tentsio une arriskutsuak desbideratzea da helburua.

m) Jarrera bat desagertzea eta haren alternatiboa dana zuzpertz nahi dogunean, konparaketak egiten hasi beharrean (txarto egiten dauanari ekinez) une horretan jarrera egokia agertzen dauana baloratu. Era horretara azpimarkatzen doguna haxe izango da, eredu izan behar dan jarrerea.

2.4.- IKASLEAK SOZIABILITATEA GARATUKO DAU, BAI GIZARTERA EGOKITZEKO, BAINA BAITA ERE ALKARTASUNA (solidaritatea) ADISKIDETASUNA (amistadea), ALKARLAGUNTZEA (kooperazioa) ETA KIDETASUNA (konpañerismoa) ZUZPERTUAZ, GIZARTE HORREN HOBAKUNTZAN JARRERA AKTIBOA IZAN DAIAN.

Gizarteratze positibo eta eraginkor batera definizioan aipatutako baloreak garatuaz baino ezin leiteke heldu. Horregaitik, bada, agertu eta azpimarkatzen dira, helburu honetan baloreik, gizarteratzearen zutabe gisa.

Ez dira, halan ere, bata bestearen gainean, orden jerarkiko batetan eraikitzeak. Bata besteagaz, alkarlotuta, landu behar dira.

JARRAIPIDE METODOLOGIKOAK:

a) Jarrera solidarioak agertzen diran edozein unetan, publikoki baloratu beti (Honetarako arreta berezia izan behar dogu).

b) Eskola bizitzan (ikasketak, harremanak...) arazoak dauazanari laguntzea bultzatu.

d) Hagaitik edo besteagaitik eskolara etorri ez danari lanak eroatera bultzatu.

e) Dilemen bitartez, egoera hipotetikoak planteatuz (egunarroko bizitzan behatzen doguzan jarrera insolidarioak batuaz, eta horren inguruan gertatzen diran guztiak deskribatuz), asanblada edo tutoritza saioak eratu*.

* Gai lez, dagoeneko ondoko honeek proposatu dira:

-Solidaritatea dala ta umeengan dagoan oker ulertze hau :
Trarto jokatu dauana "tapatzea" dala solidarioa izatea uste dabe. Landu hau.

- Gehiengoak onartu dauan erabagi baten aurrean, gitxiengoak parterik ez hartzea (berarenak ez daualako urten, beste bako "pataletea")

f) Eskolaurrean eta H. Zikloan, ipuinen bidez edo txotxongiloez... istorioak kontatu, pertsonaien jokabideak baloratu, komentatu, ondorioetara heldu.

g) Talde lana bultzatu, ez eskola mailan bakarrik, baita honelakoetan ere: antzerki taldea, informazioa eskolatik kanpo batu eta alkarrerri barri emoteko, gizarte lanak egiteko (paper bilketea...) ...Alkar lana egin ostean danak partaide dirala, lanaren balorazioa egin taldean.

h) Alkarregaz lanean jarri bata besteari laguntzen ("aprendizaje cooperativo").

i) Gelako eraketan malgutasuna izan: mahaien eraketan, toki-aldaketan ... hartuemonak ahalbidetzeko eta, baita ere arestian aipatutako "aprendizaje cooperativo" dan hori.

j) Hain trebeak ez diranak taldeetan integratzeko, liderraren ezaugarri onak erabili, identifikazio eredu izaten diralako.

k) Gelako arduradunak izendatu, funtzioak danen artean argi jarririk , epeka aldatu.

l) Alkar ezagutzeko une aproposak sortu. Talde flexibleak osotu, maila osoa alkatu... (Goi Zikloan, tutoritza orduetan). Zikloen hasieran edo amaieran egunetarako urtenaldiak egin.

2.5.- ARAZOEI* AURRE EGIN ETA URTENBIDEA BILATZEKO ETA NORBERE TREBETASUNAK ETA GAITASUNAK GARATZEN JOATEKO GOGOIA ETA KEMENA IZANGO DAU.

* ARAZO hitza hoela ulertzen dala:

Eginkizuna, zeregina/ ekintzen eta gauzek konpontzeko izaten dabezan nahiz sortzen dabezan buruhauste eta zailtasunak.

JARRAIPIDE METODOLOJIKOAK:

- a) Ikasle bakoitzaren ezagupidea izan, besteetan nora ez dala "Motivación de logro" arloan. Ezagupidean eta orientazioan IMCkoekaz egiten dan lana oinarri dogularik.
- b) Guraso eskolea bultzatu, gurasoak be bardintsu edo, hari beretik jokatu daien.
- d) Ahalegintsua dan eta nota eskasak ataratzen dauazan ikasleari bereziki baloratu ahalegin hori, honetrako biderik egokienak bilatuz: agendan goraiatztea, kartilan oharren bat eranstea,...
- e) Arazoen aurrean urtenbideak bilatzeko estrategiak landu.
- f) Ikasgaia, edo dana dalakoa aurkeztu aurretik , ikaslearen jakingurea, kuriosidadea biztu, zuzpertz (galderen bidez,arazo errealak planteatuz...)
- g) Bitarteko pauso lez, errefuerzoak erabili: balorazio positiboak publikoak aipamenak,...
- h) Ikasleak eginkizunen bat txarto egiten dauanean, gure zuzentzeko erea zaindu, motibagarri izan beharrean hondagarri izan ez daiten.
- i) Usteonezko, konfidantzazko giroa eskaini ikasleari, lasaitasunean eta baikor garatu daian bere lanarekiko jarrerea, bere motibazioa.
- j) Ikasleak egin ahal dauanik norberak egin ez; berak egitera bultzatu, animatu, eta gehienez, urtenbidea lortzeko irizpide batzuk eskaini.
- k) Ikasteko metodolojiak animatzaileak, motibatzaileak izatea:talde lanak, errefuertzu positiboak,...
- l) Ikasgai bat hartu une puntual batean (epe laburreko lana eskatzen dauana) eta joko modura planteatu talde egokitu biren arteko lehiaketea taldekide bakoitzaren lorpena taldearen alde joango litzatekela.
- m) Ikasleak egin behar dauazan lanak (taldekoak, gelakoak,etxekoak,...) egiteak eroango leukien denpora erreala kalkulatu eta gero jarri diran denpora mugetan eskatu (salbuezenak salbuezen). Honetan gure jarrerea tinkoa izan behar da.
- n) Agintzen diran lanak eskatu eta baloratu beti. Ikasleak bere lanaren jarraipena egiten dala bizi behar dau.
- ñ) Ikasgaien tratamendu aldetik:
Ikasgaien aurkezpena zaindu:
 - Ikasiko dabenaren helburua argitu, funtzional aldetik dauan balioa aurkeztu eta baloratu, beti be errealidadetik hartutako adibideak hartuz. Honetarako strategi posible bat : Ikasgaiagaz hasi aurretik egoera praktikoan jarri, konturatzeko ze arazogaz aurkitzen garan eta zelan ikasiko dogunak arazo hori bideratzera eroango gaituan.Hau da: egoera errealen bidez espektatiba batzuk soru eta betetu.
 - Arloko beste ikasgai batzuekiko dauan erlazioa eta kokapena argitu,

arloari osotasuna emonik (ikasturteko planaren barne) eta baita, beste arlo batzuek ez euki leiken loturea (adibidez: matematikako ehunekoen eta gizarteko populazio gaiaren arteko loturea).

Prozesuak zaindu:

.- Ikasgaiaren amaieran, laburpen bat egin, egin dan bidez jaubetzeko, eta ikasi dana hobeto integratzeko.

.- Hasten dan guztia amaitzea zihurtatzu, ikasleak prozesu osoaz jaubetu daitezana.

o) Bakoitzaren ahalmen eta gaitasunei buruz, espektatiba positiboak sortu.

p) Hasierako exitoa zihurtatu, motibagarri izan daiten, baina egoki dosifikatuz (adibidez ikasturte hasieran). Hau posible izan daian, beharrezko dogu hasierako ebaluaketea egitea. Holan jakingo geunke bakoitza non kokatzen dan eta hasierako exitoa lortu ahal izateko mugea non jarri behar dan.

r) Ondo eginak beti baloratu, bai ikasleei bai euren gurasoei entrebistetan. Ikasle guztiek daukie alderdi positiboren bat eta, hau bilatzen eta transmititzen saiatu behar gara.